

Ugalderi buruz idatziak

[Egile ezezaguna]

El Diario Vasco, 2004-10-05: 73-74.

Xabin Mujika (Lehengusua)

"Etxean nik beti ikusten nuen estudiatzen 'por CCC'"

"Martin ere Laborde fabrikan ibili zen, aurrena linterneroei laguntzen. Baina etxean nik beti ikusten nuen estudiatzen, 'por CCC'. Holako pilak zeukan, armarioak denak liburuz josiak. Egunero ekartzen zion karteruak zerbait. Idatzi ere beti aritzen zen idazten. Andoaingo kronikak idazten zituen *Diario Vasco*".

Joan Mari Torrealdei (Lankidea)

"Zorte handia izan da niretzat Martin ezagutu izana"

"Zorte handia da niretzat Martin ezagutu izana. Martinek ez nau leader handiaren argidistiraz itsutu. Martinek egin nau komentzitu. Pertsona bezala komentzitu nau berak, eta bere traiektoriak mireshena sortu dit. Idazle handia da, kazetari paregabea da. Paregabeagoa eta handiagoa da, ordea, pertsona gisa".

José Angel Ascunze (Kritikaria eta editorea)

"Martinen ezaugarri nagusietako bat bere humanismoa da"

"*Hablando con los vascos* eta *Cuentos de inmigrantes*, bi liburu horien orrien bitartez, aurkitu nuen gizon baten sentsibilitatea, herri honetako kultura, artea eta politikako zenbait pertsonai esanguratsu. Martinen ezaugarri nagusietako bat bere humanismo sakoneko eta bizia da, giza duintasunaren espresio bezala".

Koldo Izagirre (Idazlea)

"Zorionez, Ugaldek ez zeukan euskal literaturan maisurik"

"Zorionez, Ugaldek ez zeukan euskal literaturaren eredu hartzeko moduko maisurik, eta izan balu era zaila zukeen haren berri izatea, Euskal Herrian ume eta gaztetutakoan.

Amerikan Poe, Txekhov, Maupassant, Kipling eta latinoamerikarren tradizioan elikatu behar izan zuen, beraz. Eta beharrik: erretorikarik gabe".